Gipuzkoako Foru Aldundia
Lurralde Oreka Berdeko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Equilibrio Territorial Verde

**Dermatosi nodular kutsakorraren aurkako nahitaezko txertaketari buruzko informazioa.**

Gaur, Gipuzkoako behi aziendaren dermatosi nodular kutsakorraren (DNC) aurkako nahitaezko txertaketa ezartzen duen Foru Agindua argitaratu da. Idatzi honen bidez azaldu nahi dizugu zergatik hartzen den neurri hau, zer dakarren zure ustiategientzat eta zergatik den hain garrantzitsua zure lankidetza.

**Información sobre la vacunación obligatoria frente a la dermatosis nodular contagiosa.**

Hoy se ha publicado la Orden por la que se establece **la** vacunación obligatoria frente a la dermatosis nodular contagiosa (DNC) en el ganado vacuno en Gipuzkoa. Con este escrito queremos explicarles por qué se adopta esta medida, qué supone para sus explotaciones y por qué es tan importante su colaboración.

https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/01/09/c2600060.pdf

**Zer da dermatosi nodular kutsakorra (DNC)?**

Dermatosi nodular kutsakorra behi aziendaren gaixotasun biriko bat da, eta arazo larriak eragin ditzake: ekoizpenaren jaitsiera, animalien heriotza eta abereak mugitzeko murrizketak. Gaur egun gure lurraldean kasurik ez dagoen arren, beste leku batzuetako esperientziak erakusten du agertzen denean azkar zabaltzen dela eta eragin ekonomiko handia duela.

**¿Qué es la dermatosis nodular contagiosa (DNC)?**

La dermatosis nodular contagiosa es una enfermedad vírica del ganado vacuno que puede causar graves problemas: bajada de producción, muerte de animales y restricciones al movimiento del ganado. Aunque actualmente no haya casos en nuestro territorio, la experiencia en otros lugares demuestra que, cuando aparece, se extiende con rapidez y tiene un fuerte impacto económico.

**Zergatik jarri behar da txertoa?**

Behi ustiategi batean dermatosi nodular kutsakorraren foku bat agertzeak, osasun araudiaren arabera, hustuketa sanitarioko neurriak aplikatzera behartzen du, eta, beraz, eragindako ustiategiko animalia guztiak hil behar dira, bai gaixorik daudenak, bai itxuraz osasuntsuak direnak. Neurri hori, gogorra bada ere, beharrezkoa da gaixotasuna beste ustiategi batzuetara zabal ez dadin, eta eragin ekonomiko eta produktibo handia du abeltzainarentzat.

Dermatosi nodular kutsakorra mehatxu erreal eta hurbila da gure aziendarentzat. 2025ean zehar, foku ugari jakinarazi dira Espainian eta Frantzian, horietako batzuk gure mugetatik oso hurbil dauden departamentuetan.

Bilakaera epidemiologikoaren ondorioz (birusaren presentzia inguruko eskualdeetan, agerraldien baieztapena eta kutsapen berrien arriskua), Aldundiak behi aziendaren nahitaezko txertaketa ezarri du prebentzio neurri gisa, lurraldeko abeltzaintza sektoreko ordezkariekin kontsultatu ondoren. Jarduera horren helburua da behi aziendaren ustiategiak babestea eta gaixotasuna ez sartzeko eta ez hedatzeko arriskua minimizatzea Gipuzkoako abeltzaintza ustiategietan.

**¿Por qué hay que vacunar?**

La aparición de un foco de dermatosis nodular contagiosa en una explotación de vacuno obliga, según la normativa sanitaria, a aplicar **medidas de vaciado sanitario**, lo que implica el sacrificio de todos los animales de la explotación afectada, tanto enfermos como aparentemente sanos. Esta medida, aunque dura, es necesaria para evitar la propagación de la enfermedad a otras explotaciones y tiene un importante impacto económico y productivo para el ganadero.

La **D**NC es una amenaza real y cercana para nuestra cabaña ganadera. Durante 2025 se han notificado numerosos focos en España y Francia, algunos de ellos en departamentos situados muy cerca de nuestras fronteras.

La evolución epidemiológica, caracterizada por la presencia del virus en regiones próximas, la confirmación de brotes y el riesgo de nuevos contagios, ha llevado a la Diputación, tras consultar con los representantes del sector ganadero del territorio, a establecer la vacunación obligatoria del ganado vacuno como medida preventiva. Esta actuación tiene como objetivo proteger las explotaciones de ganado vacuno y minimizar el riesgo de introducción y propagación de la enfermedad en las explotaciones ganaderas de Gipuzkoa.

**Ustiategien lankidetza.**

**Colaboración de las explotaciones.**

Foru Aginduak lurraldeko behi azienda guztiei txertoa jartzea nahitaezkoa dela ezartzen du. Neurri hori ezinbestekoa da babes eraginkorra bermatzeko; izan ere, beharrezkoa da errolda osoa txertatzea, gaixotasuna sartzeko eta zabaltzeko arriskua ahalik eta gehien murrizteko.

La Orden establece la obligatoriedad de la vacunación para todo el ganado vacuno del Territorio. Esta medida resulta imprescindible para garantizar una protección eficaz, ya que es necesario vacunar la totalidad del censo con el fin de reducir al máximo el riesgo de introducción y propagación de la enfermedad.

Kanpainak behar bezala funtziona dezan, ezinbestekoa da abeltzaintza ustiategien lankidetza.

Para que la campaña funcione correctamente es imprescindible la colaboración de las explotaciones ganaderas.

Zehazki, beharrezkoa izango da:

- Behar diren bitartekoak jartzea txertaketa lanak segurtasun berme egokiekin egin daitezen, bai txertaketaren xede diren animalientzat, bai lan horiek egiteaz arduratzen diren langileentzat.
- Datei eta antolaketari buruz ematen zaizkien jarraibideak betetzea.
- Animaliak behar bezala identifikatuta edukitzea, aplikatu beharreko araudiak ezarritako moduan eta baldintzetan.

En concreto, será necesario:

- Poner los medios necesarios para que las tareas de vacunación se realicen con las debidas garantías de seguridad, tanto para los animales objeto de las mismas como para el personal encargado de su ejecución.
- Seguir las indicaciones que se les trasladen sobre fechas y organización.
- Tener debidamente identificados sus animales, en la forma y condiciones impuestas por la normativa aplicable.

Guztion lankidetza funtsezkoa da Gipuzkoako azienda babesteko.

La colaboración de todos es fundamental para proteger la cabaña ganadera de Gipuzkoa.

**Abere mugimendua.**

Txertoak eragina izango du behi aziendaren mugimenduetan.

Aziendaren mugimenduak Euskadi barruan, bai bizitzeko, bai hiltegirako.

Gidak orain arte bezala izapidetzen jarraitu ahal izango da, Nekagip aplikazioaren bidez.

Aziendaren mugimenduak Euskaditik kanpo.

Abereak Euskaditik **kanpo** mugituz gero, abeltzaintza ustiategietatik zuzenean abereak mugitzeko gidak egiteko aukera kenduko da.

Jarraian, abere-mugimenduaren gida lortzeko jarraitu beharreko prozedurak zehazten dira, mugimenduaren xedearen arabera:

1. Hiltegirako mugimenduak.
   Gidak, gaitutako albaitariei eskatu beharko zaizkie, eta haiek emango dituzte ustiategiko animaliek sintoma klinikorik ez dutela egiaztatu ondoren.

2. Bizitzeko mugimenduak.
   a) Lurraldean txertaketa-kanpaina amaitu eta ustiategiak txertorik jaso ez duen bitartean, beharrezkoa izango da gaitutako albaitariari ziurtagiri bat eskatzea, animaliek sintoma klinikorik ez dutela adierazteko, eta ENBn aurkeztea, non mugimendu gida prestatuko baita.
   b) Ustiategiak txertoa jaso badu: gida zuzenean eskatu beharko zaio gaitutako albaitariari.

**Movimiento de ganado.**

La vacunación tendrá repercusión en los movimientos de ganado vacuno.

Movimientos de ganado dentro de Euskadi, tanto para vida como para matadero.

Las guías se podrán seguir tramitando como hasta ahora directamente a través de Nekagip.

Movimientos de ganado fuera de Euskadi.

Para los movimientos de ganado con destino **fuera** de Euskadi, se va a retirar la posibilidad de realizar las guías de movimiento pecuario directamente desde las explotaciones ganaderas.

A continuación, se detallan los procedimientos a seguir para la obtención de la guía de movimiento pecuario en función del destino del movimiento:

1. Movimientos con destino a matadero.
   Las guías deberán solicitarse a los veterinarios habilitados, quienes las expedirán tras comprobar que los animales de la explotación no presentan síntomas clínicos.

2. Movimientos con destino a vida.
   a) Mientras no haya finalizado la campaña de vacunación en el territorio y la explotación no haya sido vacunada: será necesario solicitar un certificado al veterinario habilitado en el que conste que los animales no presentan síntomas clínicos y presentarlo en la OCA, donde se preparará la guía de movimiento.
   b) Si la explotación ha sido vacunada: será necesario solicitar la guía directamente al

Animalia bat txertatuta dagoela joko da txertoa jarri bazaio mugimendua egin baino 28 egun lehenago.

c) Lurraldean txertaketa-kanpaina amaitu bada, baina mugimenduaren xede den animaliaren bat txertatuta ez badago: nahitaezkoa izango da antigorputzen proba bat egitea txertatu gabeko animaliei, eta emaitza negatiboa izan beharko da, mugimendua egin aurretik. Gainera, gaitutako albaitariari zuzenean eskatu beharko zaio gida.

veterinario habilitado. Se considerará que un animal está vacunado, cuando se le haya administrado la vacuna al menos 28 días antes de la fecha del movimiento.

c) Si ha finalizado la campaña de vacunación en el territorio, pero alguno de los animales objeto de movimiento no está vacunado: será obligatorio realizar una prueba de anticuerpos sobre los animales no vacunados, cuyo resultado deberá ser negativo, con carácter previo al movimiento. Además, será necesario solicitar la guía directamente al veterinario habilitado.

Kasu guztietan, partida osatzen duten animaliek eta garraiorako ibilgailuek behar bezala desintsektatuta egon beharko dute.

En todos los casos, los animales que formen parte de la partida y los vehículos de transporte deberán estar debidamente desinsectados.

Aldez aurretik, eskerrik asko zure laguntzagatik.

Agradecemos de antemano su colaboración